

# “ZUBELTZU”

*VI. Bertso Paper Sariaketa*

**DEBA-ITZIAR 2015**



ANTOLATZAILEAK:



**tokian tokikoa bultzatuz**

# **“ZUBELTZU”**

## **VI. Bertso Paper Sariketa**



**DEBA-ITZIAR**

**2015**

# AURKIBIDEA

• **SARRERA** ..... 7

• **LEHEN HEZKUNTZA:**

## **5A GELA**

SUPER SUKALDARI: Amaia Aceña Gonzalo .....	10
EUSKAHALDUN: Maite Aperribai Urbietta .....	10
EHIZTARIA: Unax Arrieta Zubikarai .....	11
XELEBRE: Markel Beristain Alkorta .....	11
GORA GU TA GUTARRAK: Maren Beristain Eizagirre .....	12
UDAGORA: Irati De Anta Azkarate .....	12
SUPER SURFER: Danel Formariz Irusta .....	13
FISKU: Jon Gonzalez Belategi .....	13
ERROTA – ZAR: Aitor Gorosabel Zulaika .....	14
AITATXO: Xabi Hernandez Beitia .....	14
IDEARIK EZ: Andrew Irureta Tames .....	15
KAXERO: Oier Izagirre Mendizabal .....	15
KAIXO: Jon Loidi Azkue .....	16
SUPER BERTSO: Manex Prieto Saez .....	16
GOIKO PATIOA: Leire Sagarna Ruiz .....	17
IRATXOA: Nicola Siban Al-Sahoni .....	17
RANDY ORTON: Paul Suarez Lizaso .....	18
SHOWNAR: Ibai Unanue Garate .....	18
ERREKA: Haizea Urbietta Arrizabalo .....	19
HONDARTZA: Aroa Zulaika Jaio .....	19

## **5B GELA**

ALTAIR HILTZAILEA: Markel Abadia Caramanzana .....	20
LASS DIARRA: Unax Arratibel Garate .....	20
HORS RIDIN: Jare Bengoa Salegi .....	21
SHAKIRA: Irati Beristain Arakistain .....	21
SUPER RAJOY: Aimar Carsi Gorroño .....	22
ZAPATERO TIMADOR: Xabier Chibite Urcelay .....	22
MOKORDO: Izar Froilan Rodriguez .....	23
ALBI: Garazi Garrido Albizu .....	23

GUGUGAGA: Beñat Iriondo Aizpurua .....	24
MESSI: Oihane Izquierdo Aperribay .....	24
TONTAKERIA: Maren Lobete Gonzalez .....	25
RAJOY PATADAS BOLADORAS: Alejandro Morcillo Becerra .....	25
DORA EXPLORADORA: Jon Movellan Carrillo .....	26
ADAR JOTZAILLE PROFESIONALA: Derese Pancorbo Moreno .....	26
SORGIN: Nahia Perez Agirre .....	27
ARRAINA: Ane Rodriguez Acha .....	27
EUSKAL RISOTO: Martina Soto Ostolaza .....	28
BOOOMBA: June Sudupe Beristain .....	29
HERVIAS: Markel Villa Aperribay .....	29
POZGARRI PERTSONALA: Olatz Zabala Aizpurua .....	30
TXIPIROIA: Nerea Zubia Gonzalez .....	30

## **6A GELA**

LOLIPOP: Elene Aizpurua Zabala .....	31
VEGETA 777: Unai Duran Albizu .....	31
DANI REP : Jon Gandiaga Larrañaga .....	32
SANDIATXO: Enaitz Goikoetxea Arakistain .....	32
HAPPYDENT: Mainer Gorosabel Zulaika .....	33
GARETH BALE: Imanol Iciar Lazkano .....	33
DESSERT: Mireia Lili Gonzalez .....	34
XEEP: Iزارo Mendizabal Olaizola .....	35
ARKATZA: <b>Elene Molina Fernandez 3. SARIA</b> .....	36
LA GITANA MARIKAARMEN: Ganiz Ostolaza Subinas .....	37
GOXO-GOXO: Kerman Rico Barona .....	37
COLA: June Rodriguez Salgado .....	38
GORE: Goretta Unanue Ostolaza .....	39

## **6B GELA**

AURRIAK 13: Ager Aizpurua Arritokieta .....	40
TXERRIMAN: Aimar Arrieta Zubikarai .....	40
FELIX: Kaiet Alzibar Mancisidor .....	41
TXISPA: Aimar Arrieta Zubikarai .....	41
ABENDUAK 3: <b>Itziar Egaña Barinagarrementeria 1. SARIA</b> .....	42

PORROMAN: Kimetz Etxabe Zubiaurre .....	42
CHARLIE: Iñigo Etxeberria Barruetabeña .....	43
ERREALA: Naroa Etxeberria Sorazu .....	43
TORTILLA: Maria Faces Ansola .....	44
ARITZ ADURIZ: Unai Goikoetxea Larrañaga .....	44
2003: Galder Gorroño Antolin .....	45
SUPER DJ: Eider Itxaso Odriozola .....	45
MARTXOAK 30: Lorena Ladera Osa .....	46
CARLOS VELA: Paul Larrañaga Elosua .....	47
ABAIGAR: Itsasne Osa Lekube .....	47

## **6C GELA**

PRINGELS: Jon Ajuriagoikoa Alberdi .....	48
CULAMEN: Alaitz Albizu Cendoya .....	48
FIFA 15: Aner Asensio Leon .....	49
KAXERO: Ion Bikandi Salegi .....	49
EPAPAXI: Paula Del Olmo Salegi .....	50
AURERIA: Unai Etxabe Arrizabalaga .....	50
NOBI: Ibon Ibarluzea Galdona .....	51
BERTSOLAI: Xabi Iribar Iparragirre .....	52
PATXURRI: Elene Izeta Odriozola .....	53
CURASEMEN: <b>Lierni Jimenez Goikoetxea 2. SARIA</b> .....	54
MANCETCH: Ibone Mancisidor Etcheverry .....	55
EEEEESPARTAKO: Unai Martiartu Miranda .....	55
MENDIXUR: Maria Mendoza Vazquez .....	56
TXURRU: Jokin Narbaiza Txurruka .....	57
ZIZARETXO: Maitane Pastor Aizpurua .....	58
JUANTXO: Jon Ramirez Martin .....	58
M.R.R: Mirari Redondo Rivero .....	59
ADIDAS: Lorena Sobrado Jauregi .....	59

• **D.B.H.:**

ARKATZA: Aitor Arakistain Salas .....	62
MARIMOTOTS: <b>Itzale Laka Solozabal 2. SARIA</b> .....	63
ELUR MALUT: <b>Julia Ron Soto 3. SARIA</b> .....	64
ARBIL: <b>Aloña Salegi Alkorta 1. SARIA</b> .....	66

• **NAGUSIAK:**

5: Antton Aizpurua Aldape .....	70
GORRI: <b>Josune Arakistain Salas 3. SARIA</b> .....	72
ÑREN ÑABARDURA: <b>Manex Astigarraga Bergara 1. SARIA</b> .....	75
LASTUR: <b>Karlos Larrañaga Ostolaza 2. SARIA</b> .....	77
ZILIPURDI: Eñaut Mugarza Salegi .....	80





Hemen duzue, seigarrenez, Zubeltzu Bertso-paper sariketan aurkeztutako lanen bilduma.

Meharrago irudituko zaizue liburuxka lehenengo kolpean baina, ez horratik, irakurtzean konturatuko zarete, orri kopuruz txikiagoa izan arren, sendoagoa, osoagoa, helduagoa ageri zai-gula. Bertsoei begira jarriz gero, lanen kalitateak gora egin du, zalantzarik gabe.

Gazteek badute zer esanik, aukera eman ez gero; baina zer kontatua dutenek ez dute, askotan, barrua askatzeko modurik topatzen. Hemen agertzen diren neska-mutil, gazte zein helduek bertsoaren bidez aurkitu dute bestela esango ez lituzketen ideiak, bizpenak, pasadizoak azaleratzeko modua. Poztekoa da, beraz, ikustea, sariketa honen bitartez, ZUBELTZU zaharrak aukera hori eskaintzen diela Deba-Itziarko gazte eta herritar guztiei.

Asmatu dute parte hartzaileek istorio bitxiak, ederrak, hunki-garriak bertsoan jartzen. Emozioek, agerikoek zein ezkutukoek, mugiarazten gaituzte; bizi-arazten. Merezi du, bada, sariketa honek aurrera jarrai dezan.

Datorren urtera arte.

***Debako Udaleko Euskara Batzordea  
eta ZUHATZA Euskara Elkarte***





**ZUBELTZU**

**LEHEN HEZKUNTZA**

## 5. MAILA

*(5A gela)*

### **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen.

Nire ametsa dugu  
oso arraroa,  
masterchef juniorrean  
sartzeko gogoia.  
Famosa izatea  
baina ez zoroa,  
lekuak ezagutuz  
disfrute mordoa.

*SUPER SUKALDARI: Amaia Aceña Gonzalo*

### **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nik nahi dut nire ametsak  
argi egitea  
baina badut amets bat  
saskian sartzea  
gogor jolasten badut  
baleike lortzea  
azkenik lortuko dut  
ametsa sortzea.

*EUSKAHALDUN: Maite Aperribai Urbiet*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Maritxu nora zoaz

Nire ametsa hau da  
portero izatea  
eta gurasoekin  
ondo pasatzea  
ondoren lagunekin  
juergan egotea  
eta erretiroa  
betiko hartzea

*EHIZTARIA: Unax Arrieta Zubikarai*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Maritxu nora zoaz

Ni xelebre jauna naiz  
ametsez betea  
baina nahiko nukena  
badaukat ordea  
neska polit-polit bat  
nik harrapatzea  
eta neska horrekin  
dena betetzea.

*XELEBRE: Markel Beristain Alkorta*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira ezazu

Nire ametsa baita  
ona izatea  
lana eduki eta  
ondo pasatzea.

Lagunekin bizitzen  
Donosti aldean  
Reala ikusita  
bai denok kalean.

*GORA GU TA GUTARRAK: Maren Beristain Eizagirre*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira zazu

Kriston ametsa dakat  
polita benetan  
uda iristea da  
ederra hondartzan.

Lagunekin jolasten  
hamakan etzanda  
eguzkia hartuta  
earra parranda.

*UDAGORA: Irati De Anta Azkarate*

## **NIRE BETIKO AMETSA**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Nire betiko ametsa  
surfista izatea  
olatuan krestatik  
floter egitea  
Debako olatuekin  
tuboan sartzea  
gero nire etxean  
bero dutxatzea

*SUPER SURFER: Danel Formariz Irusta*

## **PORTERO IZATEA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nire ametsa hau da  
portero izatea  
Chelsea-n ondo jokatu  
ta irabaztea  
Barçak fitxatzea ta  
Champions jokatzeta  
gero erretiroa  
ta ondo bizitzea.

*FISKU: Jon Gonzalez Belategi*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Munichera joateko  
nik badut artea  
nahiko dut betidanik  
Bayerren hartzea  
eta han futbolista  
ona izatea  
eta neska polit bat  
bertan aurkitzea.

*ERROTA-ZAR: Aitor Gorosabel Zulaika*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Hegazkin batetikan  
nahi det botatzia,  
denbora hortan nahi det  
ondo pasatzia,  
baina arriskutsua  
da handik jeistia,  
espero dut betiko  
hortan ez hiltzia.

*AITATXO: Xabi Hernandez Beitia*



## **NIRE AMETSA**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Handitan bidai asko  
nik egin nahi ditut,  
baina ezagutzeko  
eramango zaitut,  
orduana nora joan  
erabakiko dut,  
azkenean dirua  
eskatuko dizut.

*IDEARIK EZ: Andrew Irureta Tames*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Santa eskea

Euskal Herrian jaio nintzan da  
hementxe nahi det nik bizi  
Attola berri baserritikan  
ez det joan nahi ihesi.

Golperik egin gabe bizi ta  
dirua irabaztea  
jornala edukitzea eta  
famosoa izatea.

*KAXERO: Oier Izagirre Mendizabal*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nire ametsa nahi det  
zuentzat kontatu  
Shakira bezelaxe  
Obamai kantatu.  
Mikrofonoa erori  
ta bertan puskatu  
ezin izango nuke  
kantua bukatu.

*KAIXO: Jon Loidi Azkue*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Ni joango naiz Hawaira  
ondo pasatzera  
nire gurasoekin  
hondartza batera.  
Hotel bat alkilatu  
ta lo egitera  
goizean berriz esna  
eta gosaltzera.

*SUPER BERTSO: Manex Prieto Saez*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Ni oso alaia naiz ta  
nire ametsa hau da,  
Hawaiira joatea  
ondo pasatzera,  
han lagunekin pozik  
plaian jolastera,  
poz-pezik ibilita  
denok bazkaltzera.

*GOIKO PATIOA: Leire Sagarna Ruiz*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nire betiko ametsa,  
txakurra eukitzea  
hainbeste maite ditut,  
nola ez gustatzea?

Ai ze politikak diren,  
txakurrak benetan  
behin betiko lagunak,  
niretzat bizitzan.

*IRATXOA: Nicola Sibani Al-Sahoni*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Maritxu nora zoaz

Nik izan nahiko nuke  
zientzilari ona  
lantegi on batean  
egitea lana  
diru asko euki ta  
etxe handiena  
etxera hartu buelta  
ta afaldu dena.

*RANDY ORTON: Paul Suarez Lizaso*

## **KORRIKAN BETI**

Doinua: Ama begira zazu

Txikitatik korrikan  
beti lasterketan  
benak irabaztean  
jarraituko bertan.

Handik urte batera  
diru asko nuen  
neska polit batetaz  
maitemindu nintzen.

*SHOWNAR: Ibai Unanue Garate*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira zazu

Nire ametsa da ta  
dirua izatea  
posible dela eta  
pozik bizitzea.

Lehenengo aukera  
zaila izatea  
bigarrena erreza  
hori bai nirea.

*ERREKA: Haizea Urbietta Arrizabalo*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira zazu

Ni ametsetan beti  
igerilaria  
baina herrian ez do  
hortako taldia.

Pistina eder-ederra  
egongo da hemen  
erabiliko dut nik  
bihar eta aurten.

*HONDARTZA: Aroa Zulaika Jaio*

## **(5B gela)**

### **NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira zazu

Hau da nire ametsa  
futbolari izan  
kopak irabazita  
ondo nago Deban

Nire hurrengo ametsa  
kanpeoi izatea  
dirua irabazita  
Nintendo erostea

*ALTAIR HILTZAILEA: Markel Abadia Caramanzana*

### **NIRE AMETSAK**

Doinua: Ama begira zazu

Huxe da nire ametsa  
ziklista izatea  
Jose Jabierrekin  
biok jolastea.

Bizikleta berri bat  
erosiko nuke  
Pinarelo dogma bat  
izango litzake.

*LASS DIARRA: Unax Arratibel Garate*

## **NIRE TXAKUR POLITA**

Doinua: Pasaiaiko plazatik

Txiki - txikitatikan  
hauxe nahi nuke bai  
txakur txiki batekin  
pasiatzia nahi  
txakur polit horrekin  
ondo egotia ai !  
txakur txiki horreri  
jarri izena Kai.

Kai etxean euki ta  
bikain pasatzeko  
paseatzea irten  
da bai jolasteko  
kaka ta txixa inda  
jasota hobeto  
oain etxea eta  
geo hamaiketako.

*HORS RIDIN: Jare Bengoa Salegi*

## **NI ANDEREÑO**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Andereño izatea  
da nire ametsa  
hortarako askotan  
pentsa eta pentsa.

Nire beste ametsa  
famosa izatea  
baina ez da erraza  
horixe lortzea.

*SHAKIRA: Irati Beristain Arakistain*



## **NIRE AMETS ONENA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nire amets onena  
pozik bizitzea  
nire familiarekin  
beti kantatzea.  
Nire bigarren amets  
piraguan jartzea  
nire lagunekin ta  
inoiz ez hiltzea.

*SUPER RAJOY: Aimar Carsi Gorroño*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nire amets onena  
polizia izatea,  
lagunekin batera  
pozik egotea.  
Nire beste ametsa  
Lurra esploratzea,  
Hawaira joan eta  
plaiain bainatzea

*ZAPATERO TIMADOR: Xabier Chibite Urcelay*

## **NIRE AMETS GOGOKOA**

Doinua: Astoa kusi nuen

Amets handi bat daukat  
hegan egiteko  
hegalak eukitzea  
goian jolasteko  
etxe handi bat euki  
ta han bizitzeko  
nire ama ta aita  
bertan egoteko

*MOKORDO: Izar Froilan Rodriguez*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira ezazu

Nire ametsa hau da  
lotan nagoenean  
kohetean sartu naiz  
begiak ixtean.

Martera iritsi ta  
goaz tabernara  
ondo pasatzekotan  
gatoz espaziora.

*ALBI: Garazi Garrido Albizu*

## **NIK AMETS ASKO DITUT**

Doinua: Aitorren Hizkuntz zaharra

Nire ametsak dira  
izan futbolari  
lagunekin pasatu  
gure bizi hori  
za(ha)rtxua izan arte  
pozik bizi bedi  
Mintxetan atletismoan  
ekin korrikari

*GUGUGAGA: Beñat Iriondo Aizpurua*

## **NIRE AMETSAK DIRA**

Doinua: Maritxu nora zoaz

Nire ametsak dira  
barregarrienak  
bat da irakurtzea  
munduko ipuinak  
bestea pozgarria  
laguntzea denak  
hoiek izango dira  
amets politenak.

*MESSI: Oihane Izquierdo Aperribay*

## **NIRE AMETS LIBURUA**

Doinua: Ama begira zazu

Nik amets bat badaukat  
ez da ba txorua  
famoso bihurtzea  
nire liburua.

Herriko plazan eta  
denok entzutea:  
lehen bai lehen hobe  
da irakurtzea.

*TONTAKERIA-Maren Lobete Gonzalez*

## **NIRE AMETSA KONPLITU**

Doinua: Ama begira zazu

Deban bizi naiz eta  
nire ametsa da,  
polizia izatea  
hori ona bada.

Bestea futbolean  
ondo jolastea,  
lagunekin egonda  
pozik bizitzea.

*RAJOY PATADAS BOLADORAS: Alejandro Morcillo Becerra*

## **HAUEXEK DIRA NIRE AMETSAK**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nire ametsak dira  
txerria ikustean  
korrikan joatea  
bera ibiltzean  
bide gorria egin  
eta jolastean  
mendirra joan berekin  
saltoka hastean.

*DORA EXPLORADORA: Jon Movellan Carrillo*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Hauxe da nire ametsa  
ertzaina izatea  
lapurreri gelditu  
ta ondo pasatzea  
beste ametsa ping-ponga  
nik irabaztea  
Jesusek irekiko  
dit neri atea.

*ADAR JOTZAILE PROFESIONALA: Derese Pancorbo Moreno*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira zazu

Hau da nire ametsa  
nire amets ona  
barkoan nabegatu  
hara eta hona.

Hurrengoan ordea  
asko maitatzea  
amatxo eta aitaxo  
beti bizitzea.

*SORGIN: Nahia Perez Agirre*

## **NIRE AMETS HANDIA...**

Doinua: Ama begira zazu

Nire amets handia  
da bidaiatzea  
ez zitzaidan gustauko  
hori bukatzea.

Amerika ta Asia  
onenak bai dira  
baita ere joango  
nintzen Afrikara.

*ARRAINA: Ane Rodriguez Acha*

## AMETS PERFEKTUA

Doinua: Ama begira zazu

Amets guztiak dira  
denen gustukoak,  
batzuk dirutzarekin  
jefe mundukoak.

Hasieran dena errez  
ta gero penura,  
familia aparte  
bizitzan tristura.

Hori kontuan eukiz  
la monda lironda,  
nire amets perfektua  
nire familia da.

*EUSKAL RISOTO: Martina Soto Ostolaza*





## **NIRE AMETSAK**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Betidanik amets bat  
aukeratzekotan,  
dirua eukitzea  
ta egitea lan  
imaginazioa  
erabiltzekotan  
amets asko ditut ta  
zer in beharko zan.

Hegan patin gainean  
saltaka etxean,  
ta lurrean etzanda  
elurran gainean,  
lagunekin zelaian  
beti jolasean  
ez dago amaierarik  
nire ametsean.

*BOOOMBA: June Sudupe Beristain*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Futbolari on-on bat  
nahiko nuke izan  
Amaikan jolastuta  
ondo egiteko lan.  
Golegile bikaina  
bihurtuko naiz han  
nire taldearekin  
bizitzeko Deban.

*HERVIAS: Markel Villa Aperribay*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira zazu.

Nire ametsak beti  
txakurrakin bizi  
neurekin betidanik  
ingo dira hazi

Baserrian ta kortan  
neure lana egin  
nire aitarekin ta  
nire anaiakin.

*POZGARRI PERTSONALA: Olatz Zabala Aizpurua*

## **HEGAN EGIN NAHI DUT**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Ametsa aukerau behar  
baten edo bitan  
oso polita baina  
zaila da egitan  
hegan egitea da  
ametsa benetan  
jakin beharko nuke  
nola egiten dan

*TXIPIROIA: Nerea Zubia Gonzalez*

## **(6A gela)**

### **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Pello Joxepe

Londresen pasauko det udara  
inglesakin gozatzeko  
zeren bestela gelditu bihar naiz  
euskerakin betirako  
Maite det baina nire ametsa  
da bizitza osorako  
horregatikan bidaia honek  
balio dit guztirako

*LOLIPOP: Elene Aizpurua Zabala*

### **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Maritxu nora zoaz

Nire etxe politan  
gela sekretuak  
eta han bertan egon  
armak pilatuak  
gainera helduko dira  
kanibal gaiztuak  
hobeto ulertzeko  
zombi erotuak

*VEGETA 777: Unai Duran Albizu*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira zazu

Nire ametsa hau da  
tenislari izan  
nire raketarekin  
pelotari eman.

Profesionalekin  
jolastea nahi dut  
eta Roland Garrosak  
niretzat nahi ditut

Jolastu eta gero  
entrenatuko dut  
ta onenatarikoak  
bihurtuko ditut

*DANI REP: Jon Gandiaga Larrañaga*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Errota-Zahar maitea

Atleta nagusi bat  
nahi nuke nik izan  
krosetan parte hartu  
ta gero ondo jan  
barre algarak behintzat  
inoiz ez han faltan  
ondo pasatzea da  
kontua benetan

*SANDIATXO: Enaitz Goikoetxea Arakistain*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Badira hiru aste

Erosiko banu aspalditik  
zortedunaren kiniela.  
Estatu Batuetan egongo  
nintzen ni jaten berdela.  
Kontzertutara joango nintzen ni  
eskutan nula kandela  
eta patrikan eukiko nuke  
maitalearen papela.

Hurrengo egunean joango  
nintzake Central Parkerantz  
bertan *Jessie* grabatzen ikusi  
poz-pozik nengoke beraz,  
Estatu Batuetatik irten  
Etiopia alderantz  
eta bueltatuko nintzen hona  
Afrika aldetik gorantz.

*HAPPYDENT: Maider Gorosabel Zulaika*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Ama begira ezazu

Kontatuko dizuet  
gaur nire ametsa  
ez zaitezte harritu  
da oso traketsa.

Haunditan futbolari  
izan nahi dut eta  
gustatuko zitzaidan  
jotzea tronpeta.

*GARETH BALE: Imanol Iciar Lazkano*

## NIRE AMETSA

Doinua: Badira hiru aste

Egia esan zaila iten zait  
hau bertotan kontatzia  
ni gauza hauetan oso txarra naiz  
nahi det ondo ateratzia  
espero dut zuei gustatzea  
(e)ta asko disfrutatzia  
segituan kontauko dizuet  
nire amets zoragarria.

Neri gustauko zitzaidana da  
izatea aktorea  
loteria tokatzea eta  
txalet bat nik erostea  
munduan zehar bidaiatzea  
(e)ta gauzak ezagutzea  
baina ez da hori bakarrikan  
nahi det mundua berdintzea

*DESSERT: Mireia Lili Gonzalez*



## NEW YORKEN

Doinua: Badira hiru aste

Notizia on bat daukat eta  
zatozte denok honera  
goiz batean ohetik jaiki ta  
irten naiz azkar kalera  
loteria tokatu egin zait  
bi milioi euro aldera  
aurtengo oporretan noa ni  
hegazkinez New Yorkera

Gaur goizean iritsi naiz hara  
maleta pila batekin  
hiria bisitatu ta gero  
deitu didate prisakin  
kontratatu didate han bertan  
beste dantzari askokin  
ni hor geldituko naiz bizitzen  
nire familiarekin

*XEEP: Izaro Mendizabal Olaizola*





## NIRE AMETSA

Doinua: Txakolina

3.  
SARIA

Pistinara joaten naiz  
astero astero  
ur ganean jo ta ke  
ordu pare edo  
igerilari on bat  
izatea espero  
sakrifizio ugari  
rekompensa gero

Medailak irabazi  
ta ondo pasatu  
Mireia Belmontekin  
pilo bat gozatu  
konpetiziotarako  
oso ondo prestatu  
ta zaharra naizenean  
hortaz gogoratu

*ARKATZA: Elene Molina Fernandez*



## **HODEIEN MAGALEAN**

Doinua: Habanera

Ni txikia nintzenean  
nahi nuen ikasi hegan  
gora igo zeruraino  
ta egon hodei artean  
itsaso urdina ikusi  
bere osotasunean  
gora eta gora igo  
ta ikusi ze txiki geran  
mundu erraldoi honetan  
basotan eta itsasotan  
hegan ibili nahi nuke  
zeru urdin erraldoian  
alde bat eta bestean  
bakarrik nere ametsean  
hauxe da nire ametsa  
hodeien magalean

*LA GITANA MARIKAARMEN: Ganiz Ostolaza Subinas*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Minberatu zaizkigu

Nire ametsa da ta  
saskian sartzea  
profesionala izan  
ta ondo pasatzea  
diru asko lortuta  
bikain bizitzea  
diru hori hartuta  
ongi afaltzea

*GOXO-GOXO: Kerman Rico Barona*

## MUNDU HOBE BAT

Doinua: Pello Joxepe

Badakit denek nahiko dutela  
loteria tokatzea  
edo bestela Hollywoodeko  
izarren bat izatea  
nik nahiago det mundu honetan  
denok lasai egotea  
nahi det guztion izateko era  
berdin-berdin onartzea

Zenbat istilu eta arazo  
horrela ezin da jarraitu  
teknologia berria eta  
ez dira ba konturatu  
ta egin behar dena nahiko nukena  
jende giroa lasaitu  
mundu bare bat gaixorik gabe  
hori ez dute asmatu

*COLA: June Rodriguez Salgado*



## **POBREZIA**

Doinua: Andre txarraren bentajak

Afrika, Asia eta Indian ere  
denak daude pobrezian  
ume asko hiltzen ari dira  
gaixo, goseak kalia  
aita santuak ta gobernuak  
ez dute egiten lanikan  
munduan pobrezia asko dago  
eta gehiegi agian

Ospitalera eramatia  
nere ideia lehena  
ondo sendauta ertetzia da  
dakaten itxaropena  
holako umeek emateiate  
neri sekulako pena  
ona ekarri ta sendatzia  
hori da ideia onena

Begiak malkoz betetzen zaizkit  
eta ematen dit lotsa  
politikariak lapurretan  
eta estutzen bizitza  
beraiek poltsikoak beteta  
besteei kenduz laguntza  
gerra ta pobrezia bukatzea  
da nire ametsa

*GORE: Goretti Unanue Ostolaza*

## **(6B gela)**

### **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Intsumisioarena

Nire ametsa dela  
asko txutatzea  
Realean jolastu  
ta gola sartzea  
dirua eta fama  
ere eukitzea  
Championsa irabazi  
ta kopa lortzea.

*URRIAK 13: Ager Aizpurua Arritokieta*

### **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Pello Joxepe

Nire ametsa beti izan da  
futbolaria izatea  
ta baita ere nik nahiko nuke  
Championsa irabaztea  
izugarrizko fama eduki  
ta Athletian jolastea  
neska laguna aurkitu eta  
ume batzuk eukitzea

**TXERRIMAN:** Aimar Arrieta Zubikarai

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Astoa ikusi nuen

Nire ametsa dala  
hegan egitea  
eta Supermanekin  
norbait salbatzea  
zerutik joan eta  
mundua ikustea  
eta oso pertsona  
majua izatea.

*FELIX: Kaiet Altzibar Mancisidor*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Minberatu zaizkigu

Nire ametsa izan da  
hegan egitea  
txoriekin batera  
asko kantatzea  
asko kostatuko zait  
ondo ikastea  
ta ikasitakuan  
asko gozatzea

*TXISPA: Aimar Arrieta Zubikarai*

## MUNDUKO GAUZA TXARRAK DESAGERTZEA

Doinua: Badira hiru aste

Zenbat jende gosea pasatzen  
kalean lotan gauero  
zenbat gerra ikusten ditugun  
telebistan egunero  
munduko gauza txar hauek denak  
desagertzerik balego  
egunen batean dena ondo  
egotea dut espero



Mundu perfektu bat dut helburu  
gaurkoaren aldrebesa  
arazorik gabeko munduan  
inungo kezkarik eza  
nahiz eta dena ondo joatea  
ez den izaten erreza  
denok zoriontsu izatea  
hauxe da nire ametsa

*ABENDUAK 3: Itziar Egaña Barinagarrementeria*

## HAUXE DA NIRE AMETSA

Doinua: Intsumisioarena

Futbolari izatea  
ta Athletian jokau  
fama handia euki  
nobia on bat bilau  
pitxitxia izan ta  
Messiri superau  
Madridera jun eta  
Illarrakin topau.

*PORROMAN: Kimetz Etxabe Zubiaurre*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Intsumisoarena

Nire ametsa dela  
azkar gidatzea  
gero karrerak egin  
ta kopak lortzea  
Carlos Sainz bezala  
famatua izatea  
eta Paris Dakarra  
ere korritzea

*CHARLIE: Iñigo Etxeberria Barruetabeña*

## **HEGAN EGIN NAHI DUT**

Doinua: Pello Joxepe

Amets polit asko dauzkat eta  
zaila da aukeratzea  
hegan egin nahi det ta zailena  
hego batzuk aurkitzea  
uste det ezinezkoa dela  
nahi detena betetzea  
hodeiekin jolastu ta ibili:  
hori nahi det nik lortzea

Hegan itia lortuko banu  
egongo nintzan ni alai  
bidaiako nuke asko eta  
txakurra jarri ber salgai  
hizkuntza pilo bat ikasteko  
oain izango nintzan gai  
leku askotan egongo nintzan  
ta bukatuko nuan blai

*ERREALA: Naroa Etxeberria Sorazu*



## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Pello Joxepe

Nire ametsa beti izan da  
dantzaria izatea  
hip-hopa eta klasikoa ere  
nahiko nuke ikastea  
oso ona izan ta txapelketan  
nahiko nuke irabaztea  
oso urruti iritsi eta  
Kursaalean dantzatzea

*TORTILLA: Maria Faces Ansola*

## **OLAIZOLA IZAN NAHI DUT**

Doinua: Minberatu zaizkigu

Txikitako ametsa  
pilota jotzea  
orain talentostako  
prueban sailkatzea  
handitan espero dut  
hauxe izatea  
Irujoren aurrean  
txapela lortzea

Txapelakin noa ni  
Nueva Yorkera  
Estatua de Libertad  
ongi ikustera  
nire familiakin  
ondo pasatzera  
hotelera iritsi  
ta lo egitera

*ARITZ ADURIZ: Unai Goikoetxea Larrañaga*

## **FUTBOLARI IZAN**

Doinua: Intsumisioarena

Athletiko taldean  
jokatuko det nik  
baina nora joango  
ote naiz ni hortik?  
Nahiko nuke zurekin  
jolastea pozik  
hauxe da ametsa ta  
ametsa da oraindik

*2003: Galder Gorroño Antolin*

## **105 URTEKIN DJ IZAN NAHIKO NUKE**

Doinua: Minberatu zaizkigu

Hau izango litzake  
asmo zailegia  
Europa osotikan  
rekorra itia  
zaila izango da baina  
behintzat saiatzia  
ehun da bost urtekin  
DJ izatia

Kontzertu ta desfile  
pilo bat atake  
azkenian ingo det  
den-dena a tope  
hainbeste dirurekin  
zer egingo nuke  
seme edo alabai  
emango nioke

*SUPER DJ: Eider Itxaso Odriozola*

## **SUPER-WOMANA**

Doinua: Intsumisioarena

Nire botereekin  
zerutikan hegan  
eta Super Lorena  
jarri zinturoian  
jendeari lagundu  
ta bostekoa eman  
nire ametsean izan  
nahi dut SuperWoman

Laguntza behar dunak  
azkar deitu neri  
eta ni joango naiz  
laguntzera zuri  
nere lana izango zen  
lagundu oneri  
ta denbora librean  
izan bertsolari.

*MARTXOAK 30: Lorena Ladera Osa*



## **FUTBOLARI IZAN NAHI DUT**

Doinua: Minberatu zaizkigu

Nire ametsa da hau  
futbolari izan  
lehen a izan beti  
Uefa Championsan  
partiduak jolastu  
Anoeta zelaian  
eta kriston juerga egin  
amaitzerakoan.

*CARLOS VELA: Paul Larrañaga Elosua*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Intsumisioa

Nire ametsa dela  
hegan egitea  
Superman bezala ba  
heroia izatea  
nire botereekin  
azkar ikastea  
eta arriskuetatik  
jendea salbatzea

*ABAIGAR: Itsasne Osa Lekube*

## **(6C gela)**

### **LAGUNEKIN GOZATU NAHI DUT**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Beti nahi dut gozatu  
nire lagunekin  
betiko jolasean  
gu baloiarekin  
gozatu egingo dut  
nik bizitzarekin  
beste guztiak nire  
inbidiarekin.

*PRINGELS: Jon Ajuriagoikoa Alberdi*

### **NIRE AMETSA**

Doinua: Habanera

Badakit urrun zaudela  
nire aitxitxa maitea  
aspalditik nahiko nuke  
ni zurekin egotea  
Lurretik joan zinen eta  
falta ni ezagutzea  
nik nahiko nuke zurekin  
alamedan elkartzea  
eta biok elkarrekin  
bueltatxo bat ematea  
beti nik nahi nuen lortu  
zuk poz-pezik laztantzea  
pena bat da zu etxean  
gurekin ez ikustea  
ta espero dut zuk ere  
nire amets hau betetzea.

*CULAMEN: Alaitz Albizu Zendoia*

## **BI AMETSAK**

Doinua: Txakolina

Hauxe da nire ametsa  
ur azpira joan  
arrain eta bizidun  
piloa itsasoan  
nik ere nahiko nuke  
beraien txokoan  
igeri egin eta  
urpekaria izan.

Hauxe bigarrena da  
Errealen jokatu  
ta ekipo horretan  
golak asko sartu  
baita ere nahiko nuke  
bihurtu famatu  
eta nire karrera  
Valencian bukatu

*FIFA 15: Aner Asensio Leon*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Pelotan izan naiz ni  
benetan traketsa  
partido guztietan  
pasatzen nun lotsa  
partidoa irabazi  
animoak altxa  
pelotari izatea  
da nire ametsa

*KAXERO: Ion Bikandi Salegi*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Habanera

Zurekin nahi det egon nik  
familiaz hitzeiteko  
jolasten disfratau eta  
bertsuetan aritzeko  
momentu izugarriak  
batera pasatutzeko  
zure mantalean beti  
goxo – goxo egoteko  
ta zenbat maite zaituten  
aurpegira esateko  
lotsak kanpoan utzita  
besarkada emateko  
baserriko lan guztitan  
poz – pozikan laguntzeko...  
edozer egingo nuke  
aitxitxa ezagutzeko.

*EPAPAXI: Paula Del Olmo Salegi*

## **MUNDUA ZEHARKATU NAHI DUT ITSASONTZIZ**

Doinua: Txakolina

Itsasontzian sartu  
atera Debatik  
bisita egiteko  
pasa Frantziatik  
motorra apurtu da  
pasa naiz dendatik  
mundua zeharkatu  
itsasoetatik.

*AURERIA: Unai Etxabe Arrizabalaga*

## **NIRE HIRU AMETSAK**

Doinua: Pello Joxepe

Nire ametsa beti izan da  
arkitekto izatea  
etxeak marraztu ta planeatu  
egunero egitea  
esaten diate lagun guztiek  
“zaila da lagun maitea”  
eta horregatik saiatuko naiz  
dena ondo ateratzea

Beste amets bat izan da beti  
futbolari izatea  
titular izan eta paradak  
beti asko egitea  
portero naiz ta Amaiak-Baten  
bi lagunekin batea  
beste birentzat suerte ona  
eta niretzat hobe

Bertso hau da ta nire azkena  
baina ustez politena  
amets onena nire ustetan  
nire familiarena  
poztuko nintzen bene-benetan  
inor ez hiltzearena  
beti nirekin egotia ta  
izango zen hoberena

*NOBI: Ibon Ibarluzea Galdona*



## FAMILIA

Doinua: Pello Joxepe

Nire ametsa pentsatzen ai naiz  
Zubeltzun parte hartzeko  
futbolaria, pilotaria  
fama ugari lortzeko  
gimnasiako irakaslea  
kirola praktikatzeko  
galdetzen diot nire buruai  
hau ber al det bizitzeko?

Hamentxe nago bertso hau iten  
nire familiagatik  
bizitzan zehar niregaitikan  
egin dezue denetik  
futbola baino garrantzitsuo  
zaretenez askogatik  
eskerrikasko guztiagatik  
eta ez joan albotik

*BERTSOLAI: Xabi Iribar Iparragirre*



## NIRE AMETSA

Doinua: Habanera

Haur nintzeneko ametsa  
betidanik ezkontzea  
baina ez mutil arrunta  
nik nahiko nuke printzea  
ezinezkoa izan arren  
bat-batean ezustea  
baina mutiko hauekin  
poza ez hobe hartzea  
orain berriz aldatu det  
hau benetan gertatzea  
izango zena neretzat  
kristonako zoratzea  
da lan on bat bilatu ta  
behintzat ondo bizitzea  
krisia bukatu eta  
mundua libre izatea.

PATXURRI: Elene Izeta Odriozola



## AKTOREA IZAN

Doinua: Habanera

2.  
SARIA

Nire ametsa hauxe da  
oso zaila egietan  
nik nahiko nuke atera  
munduko film guztietan  
Wiliam Wallace bezela  
zineko hainbat filmetan  
arrakastatsuak diren  
telebista-serietan  
pausoz-pauso joango naiz  
agertzen antzerkietan  
azkenean egongo naiz  
Hollywoodeko zinetan  
benetan ezinezkoa  
posible da ametsetan  
logelako apalean  
Oskarra daukat han bertan.

*CURASEMEN: Lierni Jimenez Goikoetxea*



## **NIRE AMETSA**

Doinua: Habanera

Hauxe da nire ametsa  
famosua izatea  
futbolean jolastu ta  
karrera ona egitea  
baina zaila da benetan  
ezinezkoa lortzea,  
ta badut beste amets bat  
nik nahiago betetzea  
hildako senideekin  
nahiko nuke elkartzea,  
amaman etxera jun ta  
denok batera jatea,  
guztiekin hitzegin ta  
familia ezagutzea,  
denok pozik izan eta  
zoriontsu bizitzea.

*MANCETCH: Ibone Mancisidor Etcheverry*

## **HAUXE DA NIRE AMETSA**

Doinua: Txakolina, txakolina

Hauxe da nire ametsa  
pozik bizitzea  
familia bat eginez  
asko maitatzea  
diru asko ez baina  
ongi izatea  
kunplitzea espero dut  
nire amets maitea.

*EEEEESPARTAKO: Unai Martiartu Miranda*

## HAUXE DA NIRE AMETSA

Doinua: Habanera

Ilargira joan nahi dut  
nire mundua ikusteko  
negarrez bizi direnei  
beien poza opatzeko  
beientzat nahi dut eraiki  
hiru etxe bizitzeko  
radioan nahi dut azaldu  
denok gogoa jartzeko  
ume hoiek eukitzeko  
denbora bat jolasteko  
nik dirua emango det  
eskolara joateko  
ta ni jungo naiz beiena  
jendiari laguntzeko  
horrela bizi nahi nuke  
nire ametsa hau dalako.

*MENDIXUR: Maria Mendoza Vazquez*



## HIRU BATEN

Doinua: Habanera

Txutxelandia badugu  
bilakatuta polita  
milaka gozoki eta  
baita etxetxoz josita.  
Aberatsa ere izan  
etxe handia eukita  
sofan egon lasai lasai  
koktelakin eserita.  
Mundu hau lasaia eta  
bere kulturak jarrita  
gerra hauek alperrikan  
ditugu gaur etorrita  
pila bat jendea dago  
etxe gabea nahasita  
nire ametsak ditut ta  
pentsatzen nago hasita.

*TXURRU: Jokin Narbaiza Txurruka*



## **NIRE AMETSA**

Doinua: Habanera

Uda pasatuko nuke  
txalet oso dotoretan  
lagunekin jolasean  
horko lorategietan  
jungo naiz lau lagunekin  
guraso gabe egietan  
hilabete nahikoa den  
dudetan gaude benetan  
surfean ere ibili  
ta picnic bat hondarretan  
pistinan botako gera  
urezko toboganetan  
eta aterako gera  
pila bat argazkietan  
oso ondo pasauko degu  
aurtengo uda honetan.

*ZIZARETXO: Maitane Pastor Aizpurua*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Triste bizi naiz eta

Ametsetan nago ni  
ia egunero  
futbolista izan nahi dut  
esaten dut gero  
ederki pasatzen det  
ohian bero-bero  
asko gustatuko zait  
hau lortu ezkeru.

*JUANTXO: Jon Ramirez Martin*

## **NIRE AMETSA**

Doinua: Pello Joxepe

Handitan dakit ze izango naizen  
dantzaria ziuraski  
familiar beti esaten dute  
“egiten dezu ederki”  
txikitatikan hasi nintzen ni  
ta joaten nintzen poliki  
nire ametsa izango da ta  
segitu nahi nuke beti.

*M.R.R: Mirari Redondo Rivero*

## **EUSKARAZ MINTZATZEA**

Doinua: Txakolina.

Nik nahi nuke euskaraz  
denek mintzatzea  
kalean ta eskolan  
denak laguntzea  
euskara bultzatzeko  
nahi dut saiatzea  
nire amets onena  
nahi dut betetzea.

*ADIDAS: Lorena Sobrado Jauregi*







**ZUBELTZU**

**D.B.H.**

## GAUR ERE NEGAR EGIN DU

Zortzi urteko mutila bera  
gaizki ari da pasatzen  
gelakideak ari zaizkio  
gauzak kendu ta apurtzen  
irakasleek ez dute berri  
eskolan denaz gertatzen  
eta mutila tutoreari  
esaten ez da ausartzen

Gauzak kendu ta apurtzeaz gain  
iraindu egiten dute  
norbaiti esateko kemena  
eduki beharko luke  
irakasleek ikusiz gero  
konpondu beharko lute  
gelakideek beti mutila  
negarrez uzten baitute

Irakasleak ohartzerako  
berriro dute iraindu  
nahiz eta berak momentu hontan  
nahi haiengandik urrundu  
bere atzetik joaten dira  
inorrek ez nahi lagundu  
azken aldian ohi den bezala  
gaur ere negar egin du

*ARKATZA: Aitor Arakistain Salas*

## GAUR ERE NEGAR EGIN DU

Doinua: Badira 3 aste



Apirilaren hogei eta zazpi  
eguna pasa da nekez  
atzo etxera bidali ninduten  
nire medikuek minez  
nire barruak ezin du jasan  
gertatu dena tamalez  
gaur ere ama ikusi dudala  
bere logelan negarrez

Gaitza neukala jakin nunean  
sentitu nintzen biluzik  
entzun nunean gelditu nintzen  
ezin txistua irentsirik  
medikuaren hitzak badaude  
nire barruan nahasirik  
señorita zure minbiziak  
ez du atzera bueltarik

Nire denbora mugatua da  
baina zurea ez ostera  
ez zazu egin negar gehiago  
ez zaitetz etorri behera  
bizitza jarraitu behar duzu  
nahiz ta ezer ez den bera  
honi aurre egingo diozu  
ama hoberena zera

*MARIMOTOTS: Itzale Laka Solozabal*

## GAUR ERE NEGAR EGIN DU

Doinua: Badira Hiru Aste

3.  
SARIA

Etxera iritsi eta biluztu  
egunero gauza bera  
komun barruan krisketa itxi  
gaurko erronka betetzera  
astelen hontan berriz pisuak  
emango dit aditzera  
ea gaurkoan zer egin dudan  
bi gramo gora ala bera

Esku biekin tripa ikutu  
hasperen egin tristerik  
agian bazkariko ogia  
gaur ez nuen jan beharrik  
ispiluko islada ikusi  
negarra eutsi ezinik  
baina halere ez dut ikusten  
horko hura ni naizenik

Nire ezpainak mugitzen ditut  
hark egiten du berbera  
baina ez da ez nire berdina  
bere mugitzeko era  
bion gorputza antzekoa da  
nortasuna ez ostera  
galdutako kiloekin ere  
galdu ote dut izaera?

Hartu dut nire indar guztiaz  
ezpainetako gorria  
eta honako hau idatzi dut  
ispilu erdi erdian  
“berdin du polit edo zatarra  
txikia ala handia,  
orain naizena onartzea da  
inporta duen guztia”

*ELUR MALUT: Julia Ron Soto*



## GIZON MISTERIOTSUA

Doinua: O baserritxo



Kalera irten eta segidan  
hantxe egoten da bera  
frontoiko aulkia hartu eta  
beti egiten du zera:  
zuzen-zuzen begiratzen dizu  
eta pentsakor jartzen da  
ez dakigu zer pentsatzen duen  
onera edo txarrera.

Beti leku berdinean dago  
eta negar malkoetan  
batzuek ez dakite zer egin  
halako egoeretan  
ordu guztiak beltzez jantzita  
bai egun ta bai gauetan  
ez du inorekin hitzegiten  
arraroa da benetan

Berarengana hurbilduko naiz  
pentsatzen dut egunero  
askok gaiztoa dela diote  
edo dagoela ero  
ez dugu inoiz ezer jakingo  
horrela egon ezkerro  
berarekin aurpegiz aurpegi  
egon nahi nuke goizero

Gaur ere frontoiko aulkian da  
nik nahi nioke lagundu  
Javier eta alarguna da  
horixe kontatu digu  
horregatik egiten du negar  
hori ere jakin dugu  
begitara begiratu diot  
gaur ere negar egin du

Asko esaten didate zure  
begi gorritutakoak  
isiltasunez barruan dauden  
gauz triste gordetakoak  
onartu gure elkarriketa  
broma eta hitz-jokoak  
irrifar gozo bihur ditezen  
begietako malkoak.

*ARBIL: Aloña Salegi Alkorta*







**ZUBELTZU**

**NAGUSIAK**

1

Gaztea zela sentitu zuen  
ikasi behar zuela  
aita falta zen eta amari  
traba kentzeko horrela  
Zaragozako lurraldeetan  
etxean balitz bezela  
amaz ikasi zuen moduan  
txukundu ohi zuen gela  
hala sentitu ohi zuelako  
familia gertu zela

2

Karrerarekin bukatu eta  
berriz hona bueltatzean  
Mutrikun lana eman zioten  
denentzat ustekabean  
etxean ez zen sobera diru  
beraz alde egin ezean  
etxeko anai txikia jarri  
beharko zuten lanean  
beraz nahi gabe baina etxea  
berriz utzi zun atzean

3

Joan aurretik zin egin zuen  
itzuliko naiz berriro  
anai-arrebak ta noski ama  
besarkatuz maitekiro  
atzera ezin begiratuta  
negarrez joan zen astiro  
noiz bueltatuko pentsatzen zela  
auto barrura zen igo  
orain bueltatu ohi da bisitan  
posible duen aldiro

4

Etorkizuna sarritan ez da  
izaten espero dena  
lanean zela ezagutu zun  
bikote izango zena  
nahiz Gipuzkoan gera beharrak  
sorrarazten zion pena  
maitasun sendo batek lasaitzen  
zion nolabait barrena  
bere barruan hala hartuaz  
han geratzeko baimena

5

Oraindik Deban bizi da bera  
familia osatuta  
etxe bat dauka baina Elorrin  
oraindik ez du ahaztuta  
Saharauen gisa etxea  
ahazteko beldurtuta  
etxe berria maitatu edo  
ez maitatzeko burruka  
sorterrirako maitasun horrek  
du erabat itsututa

6

Ama izan da ume zenetik  
esperantzaren mendeko  
izoztutako nahia baserri  
txiki baten bizitzeko  
ea aukera izaten duen  
amets hori betetzeko  
nahiz beti ez den aukera izaten  
nahi dena aukeratzeko  
agian inoiz itzuliko da  
betiko han geratzeko

*5: Antton Aizpurua Aldape*

## LOTSAK

Doinua: Haizea dator ifarraldetik

3.  
SARIA

1

Nola beldurrek ta nola lotsek  
gezurretik asko duten  
saiatuko naiz bertso hauetan  
dagoena erakusten  
zeren batzutan, nahita, nahi gabe  
ez dugu garbi ikusten  
isilik baina, sentipen hauek  
geure bizitza zapuzten  
jira ta buelta zenbat ideia  
ari zait burua puzten  
hortxe usteltzen dira irtetzen  
ez baldin bazaie uzten

2

Izerdi hotza kopetan bera  
begirada ezin jaso  
ikusentzule finenak ere  
bihurtzen dira marrazo  
neure buruai esaten diot:  
“hi ze ari haiz pailazo!  
jende aurrean hitz egitea,  
ez den hirea akaso”  
beste behin ere hitzen totela  
ez dadin izan arazo  
beldur horiei, lotsa horiei  
autoestimaz eraso!

3

Dieta hura hasi nuela  
urtebete eta piku  
baina halere S-batean  
nago ni ezin kabitu  
Nahiago nuke titi handiak  
ta izter finak banitu  
gisa honetan ezin nau inork,  
inolaz ere ukitu  
sobran dagoen lekutik kendu  
ta falta denean gehitu  
garen bezala maita gaitezen  
hori ez da ta delitu

4

Galdera huts bat, izan daiteke  
nor, zenbat, zer nolakoa?  
eta handia izan daiteke  
horrekin jasotakoa  
baina eskua altxatu ordez  
egiten da aurkakoa  
zer pentsatuko duten besteek  
al da gure oztopoa?  
ideiak garbi edukitzea  
denez ezinbestekoa  
ez galdetu ta, izango zera  
lotsatia gehi tontoa

5

Bera omen da zure maitea,  
zure bihotzeko zati  
ausartu zaitez, ta esaiozu  
isilunea ebaki  
“ez-bai” horien beldur guztiok  
bihurtzen gera lotsati  
geure burua engainatzeko  
sortuz hamaika aitzaki  
aitortu gabe ez du jakingo  
ta jakitean... nork daki!  
erantzun hori ezetza dela  
etzazu zuk erabaki

6

Zenbat momentu zaborretara  
beldur ta lotsak tarteko  
ez nintzen jaio bizi osoa  
gorrituta egoteko  
gaiari bueltak eman dizkiot,  
milaka dagoeneko  
ni bezalaxe pentsatu hontaz,  
ez da inoren kalteko  
lotsak galtzeak ez du esan nahi  
naizenik lotsagabeko  
geure txikian askeak gara  
nahi deguna egiteko

*GORRI: Josune Arakistain Salas*

## ANAIA, ALZHEIMERRA ETA NI

Doinua: Herri txikien negu gordina

1.  
SARIA

*Sarrera: Gaitz berezia eta gogorra da alzheimerra. Denboraren eta iza-  
naren ahanzturazko errealitate irrealen sorrerak sentimendu nahasi eta  
ulergaitzak dekartza haren biktimentzat. Bertso sorta honek, alzheimer-  
ra sufritzen duen familia baten egunerokotasunaren zati bat deskri-  
batu nahi luke, bi anairen ikuspuntuetatik.*

### Anai gaztea

1. Tiro hotsekin esnatua naiz  
hau ez da nire logela,  
ezezagun bat hortxe jarrita  
gozo esan dit horrela;  
bera lanera doala orain  
anaia badatorrela  
eta Fatima nire maitea  
bihar etorriko dela.
3. -Zer ibili haiz? Ene anaia  
hainbeste urtez urruti.  
Eztaukak huan gazte itxura,  
preso al haute eduki?  
-Arraro xamar begiratu nau  
begi biekin erruki-  
Gerra aspaldi galdu genian  
-Besarkatu nau estuki.
5. Zuku kaskarrak edanaraziz  
andra za(ha)r bat eta biak.  
Andre zaharra joan denean  
anaiagana begiak.  
-Nire jakiak pozoitu nahian  
dabiltzala uste diat.  
Zer hari haiz hor, geldi, begira?  
Altxatzen lagunduidak!

### Anai zaharra

2. la mendeko anaitasuna  
bihotzera erantsia,  
ate sarreran gurutzatu dut  
bere alaba ahantzia.  
Gelara sartu, berriro ere  
betiko inpotentzia,  
goizero legez jantzi nahian  
memoria erantzia.
4. Gerra galduen ezintasuna  
borroka nahiaren etsai,  
egi denaren ezezagunez  
behin eta berriz altxa nahi.  
Arrotz duena normala zaio  
bazkaria du jolas gai,  
denboran goaz atzera eta  
denborak aurrera darrai.
6. Infantziaren errepassoak  
oroimenaren harira,  
uzta biltzeko sasoiak eta  
kotxeen mantentze gida,  
atsedenaldi deserosoak  
ispiluari begira...  
Errepikatuz errepikatuz  
lo ordua etorri da.



### **Anai gaztea**

7. Ohe hontatik altxa ezinda  
zein xelebrea eszena  
neska gazte bat bata berdeaz  
bihar arte dioena,  
ezkerraldean kuadro bat dago  
gizon pattal za(ha)r batena,  
eskuinaldean nire anaia  
lo ezinez dabilena.

9. Kanoi zaratak esnatua nau  
hau nire logela ezta,  
lehenik eta behin argitu behar  
nire barreneko kezka.  
Nire aurrean den gizon bati  
Fatimagatik galdezka,  
bihar etorri behar omen da  
horren maite dudan neska.

### **Anai zaharra**

8. Gure amaren sabel puztuan  
ilusio bat gorpuzten,  
ezkutaketan ibiltzen ginen  
arto soroak zapuzten.  
Gorputz batean ezkutatua  
nahiz zaila zaren ikusten,  
haur zineneko begirada hark  
ez dit loak hartzen uzten.

*ÑREN ÑABARDURA:*

*Manex Astigarraga Bergara*



## KAIOLAKO TAUPADAK

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: Mundu honetan halako gauzak



1

Lau metro luze, bi zabalean,  
kaiolan dadukat zita  
ohe zahar bat eta komuna,  
mahaia lurrari itsatsita  
sarraila lodi batekin dago  
ate astuna itxita  
ezintasuna, bakardadea,  
nago nahikoa etsita  
labezomorro eta saguei  
eskertzen diet bisita.

2

Eguna joan eguna etorri  
itxita hogeitau orduan  
bost urrats haruntz eta bost honuntz  
nabil roboten moduan  
lau orma lohitu besterik ez dut  
ikusteko inguruan  
baina begiak urrun luzatu  
bihotzaren aginduan  
eta burua hegan joan zait  
nago ametsen munduan.

3

Sarraila hotsak nire ametsak  
eten ditu ezustean  
kartzeleroan mutur zorrotza  
agertu zait tupustean  
aisialdia bi ordurako  
agindu dit bat-batean  
berriketaldi bat Keparekin,  
pare bat kafe tartean  
penaz itoko nintzen lagun hau  
ez banu aldamenean.

4

Zenbat arlote ta gizagaixo  
honuntza dituzten bota  
giza-hondakinak ezkutatzeko  
berez egina dago-ta  
drogazaleak, litxarreroak  
miseriatan itota  
begiradetan distirarik ez  
daude etsipenak jota  
ederki asko islatzen da hemen  
gizarte baten porrota.

5

Bart gauerdian ate zartadek  
kolpetikan iratzarri  
zerbait larria gertatzen zen han  
eta erne nintzen jarri  
aldameneko ziegan Manuel  
arnas-estuka oso larri  
lasaitasuna igorri nahirik  
hitz batzuk luzatu elkarri  
baina hasperen luze batekin  
herioa iragarri.

6

Seguru nago erantzulea  
ez dela izango inor  
gizartearen hipokresia  
salatu nahi nuke gogor  
kazetariak, epaile ustel  
eta politiko doilor,  
eskubideak kartzeleroen  
agindupean daude hor  
txakurrei ere tratu hobea  
gaur egunean zaie zor.

Aste petrala, aste gogorra,  
samintasuna, ezina  
baina bizitzak aurrera darrai  
atzean utzi samina  
arratsaldean ikustaldia  
arindu behar dut mina  
une batean aske sentitu  
ai ze une atsegina!  
Lehengo irria berreskuratzen  
egingo dut alegina.

*LASTUR: Karlos Larrañaga Ostolaza*



## GOGOETA SOLTE BATZUK

Doinua: Arratsalde on ta aupa zuek

1

Orratz gizenak bat-batean jan du  
seiretarako tartea,  
izarak azal bihurtu zaizkit  
zaila buelta ematea.  
Errutinazko bizi errukarri  
honen erritmo tristea,  
aski aske izateko asko  
laburtuz doan katea.  
Goizeroko trantzea,  
hobe ez ote begiak itxi  
eta amesten jarraitzea.

2

Ohearen horizontaletik  
alduaz perspektiba,  
makarrez jositako begiak  
ez dute lehengo distira.  
Ebolaz hiltzen direnak jada  
beltzak soilik badira,  
bizarra moztu ordez lepoak  
zorroztearen satira.  
Zerrendak badu segida,  
eskerrak nagon sofa zulotik  
telebistari begira.

3

Etxeko koadro denen artean  
harrapatzen zaituena,  
boterearen esku zuriak  
koloreztatzen duena.

Odolaren gorritz margotzen du  
jarraitu behar den eskema,  
ustelkeria ezkutatzeko  
abstraktismo sakonena.

Sintonizatu antena,  
hau da manipulazioaren  
egungo obra gorena.

4

Polbora usainezko gosari,  
bonba erasoen garra,  
perdigoizko kanika jolasa,  
etxetik joan beharra,  
mina haziak ereitearen  
uzta bakarra negarra,  
isiltasun gordinean zehar  
heriotzaren marmarra...

Ezin aurkitu iparra,  
ulertu arte armen hizkuntza  
ez dela bide bakarra.

*ZILIPURDI: Eñaut Mugarza Salegi*



## ANTOLATZAILEAK:



DEBAKO UDALA  
EUSKARA SAILA



## BABESLEAK:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia